

Klima aldaketaren heroiak

Behin batean, baserri batean 4 neskak oso pozik bizi ziren, neskei mendia gustatzen zitzaien. Mendian zerbait gertatzen ari zela konturatu ziren.

Mendia basamortu bihurtzen ari zen, animaliek ez zuten jatekorik eta hil egiten ziren. Konpontzen saiatu ziren triste zirelako klima aldaketagatik. Lau neskak mendia garbitzeko hiria deitu zuten. Hiriko jendea mendira joan zen laguntzera.

Klima aldaketaren aurkako manifestazioa egin zuten eta animalientzako janaria lortu zuten. 4 neskak oso pozik zeuden, mendiaren arazoa konpondu zutelako.

Hiriak eskerrak eman zizkien neskei lan handia eta esfortzua egiteagatik. Klima aldaketa heroiak izendatu zituen hiriak eta gogoratzeko lau nesken eskultura egin zuten hirian. haiek oso pozik zeuden, mendia salbatu zutelako.